**OLATZ GARAMENDI LANDA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILEKO SAILBURUAK ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIAK**

**OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO VASCO**

# EGIAZTATZEN DUT:

# CERTIFICO:

Eusko Jaurlaritzak, 2020ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 15 de diciembre de 2020 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA JAURLARITZAREN XII. LEGEGINTZALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOEN ZERRENDA ETA PLAN HORIEK IZAPIDETZEKO PROZEDURA.** (ESP. 2020/01258) (A/20200398)

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA LA RELACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO PARA LA XII LEGISLATURA Y SU PROCEDIMIENTO DE TRAMITACIÓN.** (EXP. 2020/01258) (A/20200398)

Politika publikoen plangintza tresna egoki bat da, administrazio publikoek inplementatu behar dituzten jarduerak ordenatzeko eta koordinatzeko. Plangintzak, aurretik definitutako helburu batzuk dituen ekimen-multzo bat ordenatzen duenez, ekimen horien koherentzia eta interakzioa ahalbidetzen du, ezarritako helburuak lortzeko eta Gobernu Programarekiko lerrokatzea indartzeko.

La Planificación de las Políticas Públicas se ha consolidado como un instrumento adecuado para ordenar y coordinar las actuaciones que corresponde implementar a las Administraciones Públicas. La planificación, en la medida que ordena un conjunto de iniciativas que comparten unos objetivos predefinidos, posibilita la coherencia e interacción de tales iniciativas para alcanzar los objetivos fijados y reforzar su alineamiento con el Programa de Gobierno.

Gobernu-ekintzaren lehentasunezko eremuak definitu ondoren, plan estrategikoak identifikatu ditu, euskal gizartearekin hartutako konpromisorik garrantzitsuenen muina osatzen baitute (erabaki honen I.1 eranskinean jasota daude).

Una vez definidas las áreas prioritarias de la acción de Gobierno, se han identificado los planes estratégicos que conforman el núcleo más relevante de los compromisos adquiridos ante la sociedad vasca, y que se recogen en el Anexo I.1 del presente Acuerdo.

Jaurlaritzaren plan estrategiko identifikatuak bat datoz Gobernu Programan zehaztutako lau ardatzekin: Oparotasuna-Pertsonak-Planeta-Autogobernua.

Los Planes Estratégicos del Gobierno identificados se alinean con los cuatro ejes definidos en el Programa de Gobierno: Prosperidad-Personas-Planeta-Autogobierno.

Halaber, bat datoz Nazio Batuen garapen jasangarriko 17 helburuekin eta Europa berdeago, digitalago eta inklusiboago bat eraikitzeko Europar Batasunak daukan estrategiarekin.

Asimismo, están alineados con los 17 objetivos de Desarrollo Sostenible de las Naciones Unidas y con la estrategia de la Unión Europea para construir una Europa más verde, más digital y más inclusiva.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T2GGZ-XCMJ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2GGZ-XCMJ en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

I. eranskin horretan bertan jasotzen dira Jaurlaritzaren plan estrategikoak egiteko eta izapidetzeko jarraitu beharreko orientabide orokorrak eta prozedura homogeneoak. Horrela, Sailek planak egiteko prozesua estandarizatu, argitu eta sinplifikatu nahi da.

En ese mismo Anexo I se recogen las orientaciones generales y procedimientos homogéneos a seguir para la elaboración y tramitación de los Planes estratégicos del Gobierno. De esta forma, se pretende estandarizar, clarificar y simplificar el proceso de elaboración de los mismos por los Departamentos.

Azkenik, eta soilik erreferentzia gisa, informazio-eranskin bat jaso da, non hasiera batean identifikatzen baitira Gobernu Programa betetzeko ekimen espezifikoak plan estrategikoen osagarri gisa garatzen dituzten sektorekako eta sailetako planak.

Por último, y simplemente a modo de referencia, se recoge un Anexo informativo en el que se identifican inicialmente los Planes sectoriales y departamentales que, de forma complementaria a los Planes Estratégicos, desarrollan iniciativas específicas para dar cumplimiento al Programa de Gobierno.

Horrenbestez, erabaki honen bidez bat egiten dute, alde batetik, lehendakariari irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 3.1.a artikulua dela-eta dagokion Gobernu Ekintza planifikatzeko eta koordinatzeko eskumenek, eta, bestetik, sailen arteko interakzioagatik Gobernu Kontseiluaren onespena behar duten plan estrategikoen berri izateko organo horrek dituen zereginek.

El presente Acuerdo permite confluir las facultades de planificación y coordinación de la Acción de Gobierno que le corresponden al Lehendakari en virtud del artículo 3.1.a del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, con las funciones del Consejo de Gobierno de conocer acerca de los Planes estratégicos que requieren su aprobación dada su interacción interdepartamental.

Hori guztia dela eta, Lehendakaritzak proposatuta, eta eztabaidatu beharrekoak eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak honako hau erabaki du:

En su virtud, a propuesta de la Lehendakaritza y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente,

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-**Jaurlaritzak XII. legegintzaldirako (2020-2024) dituen plan estrategikoen zerrenda onartzea (erabaki honen I. eranskinaren 1. puntua), eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezen.

**Primero.-** Aprobar la relación de Planes Estratégicos del Gobierno para la XII Legislatura 2020-2024, incorporados como Anexo I punto 1 al presente Acuerdo, así como su remisión al Parlamento vasco para su conocimiento.

**Bigarrena.-**Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoen orientazio orokorrak eta horiek izapidetzeko prozedura onartzea, aurreko puntuan aipatzen direnak. Erabaki honen I. eranskinaren 1.2 puntuan jasota daude.

**Segundo.**- Aprobar las orientaciones generales y el procedimiento de tramitación de los Planes Estratégicos del Gobierno a los que se refiere el apartado anterior, que se recogen en el apartado I.2 del Anexo I del presente Acuerdo.

**Hirugarrena.-**Informazio-eranskin osagarri gisa jasota dagoen plan eta estrategia sektorialen hasierako zerrenda kontuan hartzea.

**Tercero.-** Tomar en consideración la Relación Inicial de Planes y Estrategias sectoriales que se recoge como Anexo informativo complementario.

**Laugarrena.-**Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiak erabaki hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, eta lehendakariak Gobernu Ekintza zuzentzeko eta koordinatzeko duen zereginari laguntzeko izango dira.

**Cuarto.-** La Secretaría General de la Presidencia adoptará las medidas necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Acuerdo, orientadas a apoyar al Lehendakari en su cometido de dirigir y coordinar la Acción de Gobierno.

**ERANSKINA**

**ANEXO**

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

# ANEXO I

## I.1.RELACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO PARA LA XII LEGISLATURA

| Planes Estratégicos | Departamento Promotor |
|---|---|
| **1.- Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación-PCTI 2030 (*)** | Lehendakaritza |
| **2. Estrategia Euskadi-Basque Country 2025** | Lehendakaritza |
| **3.- Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2025** | Seguridad |
| **4.- Plan Estratégico de Empleo (*)** | Trabajo y Empleo |
| **5.- Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública** | Gobernanza Pública y Autogobierno |
| **6.-Plan Estratégico de Desarrollo Industrial e Internacionalización (*)** | Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio ambiente |
| **7.- Plan Estratégico de Transición energética y cambio climático (*)** | Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio ambiente |
| **8.- Plan Estratégico de Economía Circular y Bioeconomía (*)** | Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio ambiente |
| **9.- Plan Estratégico de Educación** | Educación |
| **10.- Plan Estratégico de Vivienda y Regeneración urbana (*)** | Planificación Territorial, Vivienda y Transportes |
| **11.- Plan Estratégico de Salud 2021-2028** | Salud |
| **12.- VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres** | Igualdad, Justicia y Políticas Sociales |
| **13.- II Plan Estratégico de Servicios Sociales** | Igualdad, Justicia y Políticas Sociales |
| **14.- Agenda Estratégica del Euskera** | Cultura y Política Lingüística |
| **15.- Plan Estratégico de la Cultura** | Cultura y Política Lingüística |
| **16.- Plan Estratégico de Turismo y Comercio (*)** | Turismo, Comercio y Consumo |

**Nota:** Las denominaciones de los planes tiene carácter divulgativo y en algunos casos pudieran no coincidir exactamente con la denominación del Plan que resulte aprobado.

(*) Planes estratégicos que forman parte del Programa-Marco para la Reactivación Económica y el Empleo
BERPIZTU, aprobado en el C.G. del 3 de noviembre de 2020.

## I.2 - PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN Y TRAMITACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO

### 1.- ORIENTACIONES GENERALES

Con objeto de homogeneizar el proceso de elaboración y los contenidos de los Planes estratégicos de la XII Legislatura, se establecen las siguientes orientaciones generales:

a) El diseño de los Planes Estratégicos debe responder a los siguientes tres requisitos previos:

- Responder a los contenidos establecidos en el Programa de Gobierno para cada política pública.
- Alinearse con las políticas internacionales y europeas, en su ámbito de actuación.
- Encajar en la programación presupuestaria y la planificación económica del Gobierno.

b) La base de partida de cada Plan estratégico deberá considerar, en su caso, el Plan implementado en el periodo anterior, convenientemente evaluado.

c) El periodo de vigencia de la planificación estratégica coincidirá, en la medida de lo posible, con los hitos planificadores de ámbito europeo o, en su caso, internacional.

d) La elaboración e implementación de cada Plan estratégico, se realizará prioritariamente utilizando los servicios propios de cada Departamento, contando, si fuera preciso, con la colaboración de servicios externos como elemento complementario o como secretaría técnica de apoyo.

e) El Plan contemplará un sistema de indicadores homologables que permita la evaluación anual de los resultados de la política implementada y que, en sus aspectos nucleares, coincidan con los indicadores establecidos para el seguimiento de la ejecución del Programa de Gobierno. Todo Plan deberá contemplar un informe de evaluación final de su grado de cumplimiento, y, en los casos de Planes cuya extensión temporal supere los cuatro años, informes intermedios de seguimiento.

## 2.- ELABORACIÓN DE LA PROPUESTA DE PLAN Y CONTENIDOS

- El Departamento promotor elaborará el contenido de la propuesta de Plan Estratégico contemplando, como referencia, los siguientes aspectos:

    1) *Introducción*: Descripción de las necesidades a satisfacer por el Plan estratégico y su conexión con los ejes, compromisos y objetivos definidos en el Programa de Gobierno.
    2) *Diagnóstico de situación*: Descripción de la coyuntura y perspectiva de su evolución, partiendo de la evaluación de la política pública hasta el momento implementada.
    3) *Contenido estructural*: Principios. Objetivos y Ejes estratégicos.
    4) *Acciones a desarrollar*: Reflejar las acciones e iniciativas a desarrollar para el cumplimiento de los objetivos establecidos.
    5) *Planificación económica*: Escenario de recursos económicos vinculados a la ejecución del Plan, en su periodo de vigencia.
    6) *Esquema de relación institucional*: Tanto con otros Departamentos y Administraciones Públicas implicadas en su desarrollo, como las fórmulas de participación de los agentes económicos y sociales.
    7) *Modelo de Gobernanza*: Organización interna, y estimación de los medios humanos y materiales.
    8) *Sistema de seguimiento y evaluación*: Identificación del sistema de indicadores que permitan contrastar la idoneidad de la estrategia y las medidas desarrolladas. En todo caso los indicadores del Plan estratégico deberán estar alineados con el sistema de indicadores de gestión del Gobierno.

- El Departamento promotor contara con el apoyo y colaboración de la Dirección de Coordinación de Lehendakaritza y de la Dirección de Economía y Planificación del Departamento de Economía y Hacienda, en el proceso de elaboración de la propuesta de Plan.

- Los contenidos relativos al Sistema de seguimiento y evaluación deberán quedar concretados en el correspondiente apartado del Plan y ofrecerán los elementos necesarios para dar cumplimiento a lo previsto en el apartado 4.1 de este Anexo (Seguimiento y Evaluación).

## 3.- APROBACIÓN Y REMISIÓN AL PARLAMENTO

### 3.1.- INFORMES PREVIOS A LA APROBACIÓN POR CONSEJO DE GOBIERNO

- El Departamento promotor, una vez concluida la redacción inicial de la propuesta de Plan Estratégico, recabará los siguientes informes preceptivos previos a la remisión del citado Plan al Consejo de Gobierno para su aprobación.

*A) Informe de la Dirección de Coordinación de Lehendakaritza.*

En este Informe se valorarán los siguientes aspectos del Plan:

- La coherencia con los contenidos y objetivos establecidos en el Programa de Gobierno y demás Documentos Institucionales de la Legislatura.
- El encuadre de sus iniciativas en el marco de la articulación institucional del País Vasco y su marco competencial, así como la coordinación con otros ámbitos administrativos.
- Su coherencia con la planificación general del Gobierno y con los indicadores y objetivos de seguimiento establecidos en el Programa de Gobierno.

*B) Informes de la Dirección de Economía y planificación y la Dirección de Presupuestos:*

- Simultáneamente a su remisión a la Dirección de Coordinación, el Departamento promotor trasladará la propuesta de Plan a las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos para que puedan pronunciarse acerca de cualquier aspecto que tenga incidencia en las funciones que tienen asignadas en el ámbito de la planificación.

- La Dirección de Coordinación de la Lehendakaritza promoverá la remisión conjunta de su Informe y de las aportaciones las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos que estimen oportunas formular. Esta remisión se hará llegar al Departamento promotor dentro de los 15 días hábiles siguientes a su solicitud.

*C) Informe de la Oficina de Control Económico*. Con carácter previo a su elevación a Consejo de Gobierno el Departamento promotor deberá dar traslado del expediente a la Oficina de Control Económico para que emita el Informe que, de conformidad a la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, le corresponde.

### 3.2.- APROBACIÓN POR EL CONSEJO DE GOBIERNO Y REMISIÓN AL PARLAMENTO.

- Una vez recabados los Informes, y efectuados los ajustes que, en su caso, procedan, el Departamento promotor elevará el Plan Estratégico al Consejo de Gobierno para su aprobación y remisión al Parlamento.

## 4.- EJECUCIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

### 4.1.- EJECUCIÓN DEL PLAN

- El impulso y seguimiento del Plan será desempeñado por el Departamento Promotor siguiendo el "Modelo de gestión" incorporado en el propio Plan.

- Las incidencias que surjan durante el periodo planificado que impliquen una modificación sustancial en los aspectos estratégicos o económicos del Plan, serán puestas en conocimiento del Consejo de Gobierno, previo informe de la Dirección de Coordinación y de las Direcciones de Economía y Planificación y Presupuestos.

### 4.2.- SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

- Los Planes Estratégicos del Gobierno serán objeto de seguimiento y evaluación en los términos que contemple el propio Plan, y que deberán quedar reflejados en el Acuerdo aprobatorio por el Consejo de Gobierno.

- El seguimiento y la evaluación que se desarrollen se ajustarán al formato que previamente se haya incorporado en el correspondiente apartado del Plan. Tal formato de seguimiento identificará los aspectos y/o indicadores conforme a los que se va a desarrollar la monitorización del Plan y las fuentes y bases estadísticas a partir de las cuáles se abordará tal seguimiento.

- El Departamento promotor remitirá a la Dirección de Coordinación y a las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos la información relativa a los seguimientos y evaluaciones que se efectúen. En todo caso, se elaborará un informe de seguimiento anual que analizará el grado de cumplimiento de los objetivos, políticas e indicadores establecidos.

# ANEXO INFORMATIVO COMPLEMENTARIO

## RELACIÓN INICIAL PLANES Y ESTRATEGIAS SECTORIALES

(*Las denominaciones de los Planes tienen carácter divulgativo y en algunos casos pudieran no coincidir exactamente con la denominación del Plan que resulte aprobado. Esta relación es meramente indicativa de la actividad planificadora sectorial durante la XII Legislatura. Debe concebirse, por lo tanto, como un catálogo abierto, dinámico y flexible que, en su caso, podrá incorporar nuevos proyectos de planificación, modificar o desestimar otros.)*

| |
|---|
| LEHENDAKARITZA |
| Plan Interdepartamental en materia de Reto Demográfico en Euskadi |
| Plan Bizi Berri de transición Socio-sanitaria |
| Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030 |
| |
| SEGURIDAD |
| Plan de Seguridad Vial, Movilidad segura y sostenible* |
| Plan de Emergencias para enfermedades de alta capacidad de transmisión. |
| |
| TRABAJO Y EMPLEO |
| Estrategia vasca de empleo 2030 |
| Plan para reducir la temporalidad en el empleo y la parcialidad en las jornadas laborales |
| Plan de promoción de Cooperativas/Sociedades laborales |
| Estrategia Vasca de Seguridad y Salud laboral 2021-2025 |
| Plan Especial de Inspección de trabajo |
| V Plan vasco de Inclusión Social 2022-2025* |
| |
| GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |
| Estrategia Vasca de Gobierno digital |
| |
| DESARROLL0 ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| Plan 2025 de la red de Parques tecnológicos de Euskadi |
| Plan Interinstitucional de Emprendimiento* |
| Plan Gaztenet para Jóvenes agricultores |
| Programa Operativo del Fondo Europeo Marítimo de Pesca de Euskadi (FEMP 2021-2027). |
| V Plan de Atención al Trabajo temporero 2021-2024* |
| Plan Euskadi de Gastronomía y Alimentación (PEGA) |
| Plan de Desarrollo Rural de la política agraria común (PAC) |
| Plan de Prevención y Gestión de Residuos* |
| Plan Hidrológico de la CAPV 2022-2028 |
| Estrategia de Biodiversidad de la CAPV 2030* (en vigor) |
| V Programa Marco Ambiental de Euskadi 2030* |
| Estrategia Vasca de Protección del Suelo 2030* |
| Plan del control de la Contaminación atmosférica |
| Plan de Actuación para la Sostenibilidad energética del Sector público de la CAE 2025 (en vigor) |
| Plan de Inspección y Control Ambiental 2019/2026 (en vigor) |
| Plan Integral de Movilidad eléctrica |
| *Estrategia Energética de Euskadi 2030 (Integrado en Plan estratégico transición energética y cambio climático)* |
| *Estrategia contra el cambio climático. Klima 2050 (Integrado en Plan estratégico transición energética y cambio climático)* |
| |
| ECONOMÍA Y HACIENDA |
| Plan Vasco de Estadística 2023-2026* |
| Plan integral de lucha contra el Fraude fiscal |
| Programa Euskadi Next-Fondos Europeos (Programa adicional a Berpiztu) |
| |
| EDUCACIÓN |

| |
|---|
| Plan de Infraestructuras Educativas 2019-2023 (en vigor) |
| II Plan de Coeducación para el sistema educativo vasco,2019-2023 (en vigor) |
| Plan de Atención Educativa para el Alumnado con Altas Capacidades (en vigor) |
| Plan de atención educativa al alumnado inmigrante (en vigor) |
| Plan de aprendizaje a lo largo de la vida* |
| Plan del Sistema Universitario Vasco 2019-2022 (en vigor) |
| VI Plan Vasco de Formación Profesional 2019-2021 (en vigor) |
| |
| PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES |
| Plan de Movilidad sostenible 2021-2025 |
| Agenda Urbana de Euskadi Bultzatu 2050. |
| III Plan General de Carreteras del País Vasco (en vigor) |
| |
| SALUD |
| Plan general de mejora y modernización de instalaciones y equipos sanitarios |
| Plan de Investigación Sanitaria (integrado en PCTI Euskadi 2030) |
| Plan Oncológico Integral de Euskadi 2018-2023 (en vigor) |
| Plan de cuidados paliativos de Euskadi |
| Prioridades estratégicas de atención socio-sanitaria* |
| VII Plan de adicciones de la CAPV * |
| Estrategia de prevención de la obesidad infantil en Euskadi (“Sano”) (en vigor) |
| |
| IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES |
| Plan de Actuación de Violencia sobre la Mujer |
| Plan para reducir la Brecha salarial en Euskadi (en vigor) |
| Estrategia vasca de Justicia |
| Estrategia Habian 2030- Educación para la Transformación social |
| Plan de Impulso y consolidación de medios alternativos a la Resolución de conflictos |
| V Plan de Justicia Juvenil |
| Plan Interdepartamental de Emancipación Juvenil |
| Estrategia vasca de Envejecimiento activo y saludable |
| Proyecto Interinstitucional de Lucha contra la soledad no deseada |
| Estrategia Vasca de apoyo a Personas Cuidadoras |
| Estrategia vasca de Gobernanza con las personas mayores-Agenda Nagusi (en vigor) |
| IV Plan interinstitucional de apoyo a las familias 2018-2022 (en vigor) |
| Estrategia integral contra la violencia de niños, niñas y adolescentes * |
| VI Plan de actuación en el ámbito de la Ciudadanía, la Interculturalidad e Inmigración |
| Programa Marco de Educación y Derechos Humanos |
| V Plan Director de Cooperación para el Desarrollo |
| Plan de Actuación de Gogora 2021-2024 |
| Estrategia vasca con el pueblo gitano |
| Estrategia vasca de Personas sin Hogar 2018-2021 (en vigor) |
| Estrategia de promoción del tercer sector social de Euskadi* |
| Estrategia Vasca del voluntariado |
| |
| CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA |
| VII Plan de normalización del Euskera en las Administraciones públicas 2023-2027 |
| Plan para la normalización del Euskera en el ámbito socio-económico 2020-2023 (en vigor) |
| Plan Director de Actividad física-Mugiment |
| Plan de Tecnologías del Lenguaje 2021-2024 |
| |
| TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO, |
| Programa de Promoción del turismo y la hostelería (1) |
| Programa de apoyo al comercio 2024 (*) (1) |
| Plan de Kontsumobide |

*Planificación prevista por normativa legal específica

(1) Programas departamentales integrados en el Plan Estratégico de Turismo y Comercio

# I. ERANSKINA

## I.1.- XII. LEGEGINTZALDIRAKO EUSKO JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOEN ZERRENDA

| Plan estrategikoak | Sail sustatzailea |
|---|---|
| **1.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2030 (*)** | Lehendakaritza |
| **2.- Euskadi-Basque Country Estrategia 2025** | Lehendakaritza |
| **3.- Euskadiko Segurtasuneko Plan Nagusia 2025** | Segurtasuna |
| **4.- Enpleguaren Plan Estrategikoa (*)** | Lana eta Enplegua |
| **5.- Gobernantzako eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa** | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua |
| **6.- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa (*)** | Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena |
| **7.- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa (*)** | Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena |
| **8.- Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa (*)** | Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena |
| **9.- Hezkuntzaren Plan Estrategikoa.** | Hezkuntza |
| **10.- Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Estrategikoa (*)** | Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak |
| **11.- Osasunaren Plan Estrategikoa 2021-2028** | Osasuna |
| **12.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana** | Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak |
| **13.- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa** | Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak |
| **14.- Euskararen Agenda Estrategikoa** | Kultura eta Hizkuntza Politika |
| **15.- Kulturaren Plan Estrategikoa** | Kultura eta Hizkuntza Politika |
| **16.- Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa (*)** | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila |

**Oharra:** Planen izenek dibulgazio-izaera dute, eta, batzuetan, baliteke onartzen den planaren izenarekin bat ez etortzea.

(*)Suspertze Ekonomikorako eta Enplegurako Esparru Programaren parte diren plan estrategikoak BERPIZTU, 2020ko azaroaren 3ko Gobernu Kontseiluan onartua.

## I.2 - EUSKO JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOAK EGITEKO ETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA

### 1.- ORIENTABIDE OROKORRAK

XII. legegintzaldiko plan estrategikoak egiteko prozesua eta edukiak homogeneizatzeko, orientabide orokor hauek ezarri dira:

a) Plan estrategikoen diseinuak aurretiazko hiru baldintza hauei erantzun behar die:

- Gobernu Programan politika publiko bakoitzerako ezarritako edukiei erantzutea.
- Bere jardun-eremuan, nazioarteko eta Europako politikekin bat egitea.
- Jaurlaritzaren aurrekontu-programazioan eta plangintza ekonomikoan txertatzea.

b) Plan estrategiko bakoitzaren abiaburuan kontuan hartu beharko da aurreko aldian inplementatutako plana, behar bezala ebaluatuta, baldin eta planik izan bada.

c) Plangintza estrategikoaren indarraldiak bat egin beharko du, ahal bada, Europako edo, bestela, nazioarteko mugarri planifikatzaileekin.

d) Lehentasunez, Sail bakoitzaren berezko zerbitzuak erabilita egin eta inplementatu behar da plan estrategiko bakoitza, eta kanpo zerbitzuak, beharrezkoak badira, laguntza osagarri gisa edo idazkaritza tekniko gisa erabiliko dira.

e) Planak homologagarria den adierazle-sistema bat eduki beharko du, inplementatutako politikaren emaitzak ebalua daitezen; bat egin behar du, bere funtsezko alderdietan, Gobernu Programaren betearazpenaren jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin. Plan orok bere betetze-mailaren azken ebaluazioaren txostena jaso beharko du, eta lau urtetik gorako iraupena duten planen kasuan, tarteko jarraipen-txostenak.

**2.- PLANAREN PROPOSAMENA ETA EDUKIAK LANTZEA**

- Sail sustatzaileak Plan Estrategikoaren proposamenaren edukia landuko du, erreferentzia gisa honako alderdi hauek kontuan hartuta:

  9) *Hitzaurrea*: Plan estrategikoak ase beharreko premien deskribapena, eta horiek Gobernu Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin zer lotura duten.
  10) *Egoeraren diagnostikoa*: Egoeraren deskribapena eta bilakaeraren ikuspegia, orain arte ezarritako politika publikoaren ebaluaziotik abiatuta.
  11) *Egiturazko edukia*: Oinarriak. Helburu eta ardatz estrategikoak.
  12) *Garatu beharreko ekintzak*: Ezarritako helburuak betetzeko garatu beharreko ekintzak eta ekimenak adieraztea.
  13) *Ekonomiaren plangintza*: Plana indarrean dagoen bitartean gauzatzearekin lotutako baliabide ekonomikoen egoera.
  14) *Erakunde-harremanaren eskema*: Plana garatzen inplikatutako beste sail eta administrazio publiko batzuekin eta ekonomia- eta gizarte-eragileek parte hartzeko formulekin.
  15) *Gobernantza-eredua*: Barne-antolaketa, eta giza baliabideen eta baliabide materialen balioespena.
  16) *Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarduerak*: Estrategiaren eta garatutako neurrien egokitasuna kontrastatzeko bidea ematen duten adierazleen sistema identifikatzea. Nolanahi ere, plan estrategikoko adierazleek bat etorri beharko dute Jaurlaritzaren kudeaketa-adierazleen sistemarekin.

- Sail sustatzaileak Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren laguntza eta lankidetza izango du planaren proposamena egiteko prozesuan.

- Jarraipen- eta ebaluazio-sistemari buruzko edukiak planaren dagokion atalean zehaztu behar dira, eta eranskin honen 4.1 puntuan (Jarraipena eta Ebaluazioa) aurreikusitakoa betetzeko beharrezko elementuak eskaini behar dituzte.

## 3.- ONESTEA ETA LEGEBILTZARRERA IGORTZEA.

### 3.1.- GOBERNU KONTSEILUAK ONETSI AURRETIK EGIN BEHARREKO TXOSTENAK

- Sail sustatzaileak, Plan Estrategikoaren proposamenaren hasierako idazketa amaitu ondoren, nahitaezko txosten hauek eskatuko ditu, aipatutako Plana Gobernu Kontseilura bidali aurretik, hark onar ditzan.

*A) Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzaren txostena.*

Txosten horretan, planaren alderdi hauek balioetsiko dira:

- Koherentzia Gobernu Programaren eta legegintzaldiko gainerako erakunde-dokumentuen eduki eta helburuekin.
- Bere ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-antolamenduaren eta eskumen-esparruaren barruan kokatzea, bai eta beste administrazio-eremu batzuekin koordinatzea ere.
- Koherentzia Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-adierazle eta -helburuekin.

*B) Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren eta Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenak:*

- Sail sustatzaileak, Koordinaziorako Zuzendaritzara bidaltzearekin batera, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari eta Aurrekontu Zuzendaritzari helaraziko die Planaren proposamena, plangintzaren arloan esleituta dauzkaten funtzioetan eragina duen edozein alderdiri buruzko iritzia eman dezaten.

- Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzak sustatuko du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren eta Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostenak eta ekarpenak batera bidaltzea. Eskatu eta 15 egun baliodunen barruan bidali beharko zaio sail sustatzaileari bidalketa hori.

*C) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena*. Plana Gobernu Kontseilura bidali aurretik, Sail sustatzaileak Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidali behar dio espedientea, hark dagokion txostena egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearekin bat etorriz.

### 3.2.- GOBERNU KONTSEILUAK ONESTEA ETA LEGEBILTZARRERA BIDALTZEA.

- Txostenak jaso eta, dagokionean, behar diren egokitzapenak egin ondoren, plana Sail sustatzaileak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio plan estrategikoa, hark onets eta Legebiltzarrera bidal dezan.

## 4.- GAUZATZEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

### 4.1.- PLANA GAUZATZEA

- Sail sustatzaileak berak bultzatuko du plana eta egingo dio jarraipena, planean bertan sartutako “kudeaketa ereduari” jarraituz.

- Planifikatutako aldian sortzen diren gorabeherak, baldin eta planaren alderdi estrategiko edo ekonomikoetan aldaketa nabarmenak egitea eragiten badute, Gobernu Kontseiluari jakinarazi beharko zaizkio, Koordinaziorako Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontuen Zuzendaritzen txostenak jaso ondoren.

### 4.2.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

- Eusko Jaurlaritzaren plan estrategiko guztiei egin behar zaie jarraipena eta ebaluazioa, plan bakoitzean jasotakoari jarraituz, eta Gobernu Kontseiluak onetsitako erabakian jasota geratu behar dira.

- Egingo diren jarraipenak eta ebaluazioak planaren dagokion atalean aurrez jasotako formatuari jarraitu behar diote. Jarraipen-formatuak alderdi edo adierazle batzuk identifikatu behar ditu –horien arabera egingo da planaren monitorizazioa–, bai eta iturri eta oinarri estatistikoak ere, horiek izango baitira jarraipena egiteko oinarri.

- Sail sustatzaileak bidali behar dizkie Koordinaziorako Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Plangintzako eta Aurrekontuetako Zuzendaritzei egiten dituzten jarraipenei eta ebaluazioei buruzko txostenak. Nolanahi ere, urteko jarraipen-txosten bat egingo da, ezarritako helburuen, politiken eta adierazleen betetze-maila aztertzeko.

# INFORMAZIO-ERANSKIN OSAGARRIA

**PLAN ETA ESTRATEGIA SEKTORIALEN HASIERAKO ZERRENDA**

*(Planen izenek dibulgazio-izaera dute, eta, batzuetan, baliteke onartzen den planaren izenarekin bat ez etortzea. Zerrenda hori XII. legegintzaldiko sektoreko plangintza-jarduera adierazteko baino ez da. Beraz, katalogo ireki, dinamiko eta malgu gisa ulertu behar da, eta, hala badagokio, plangintza-proiektu berriak hartu ahal izango ditu barne, bai eta beste batzuk aldatu edo ezetsi ere)*

| |
|---|
| LEHENDAKARITZA |
| Euskadiko Erronka Demografikoaren arloko Sailarteko Plana |
| Trantsizio Soziosanitariorako Bizi Berri Plana |
| 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa |
| |
| SEGURTASUNA |
| Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Plana* |
| Transmisio-gaitasun handiko gaixotasunentzako Larrialdi Plana |
| |
| LANA ETA ENPLEGUA |
| Enpleguaren Euskal Estrategia 2030. |
| Enpleguaren behin-behinekotasuna eta lanaldiaren partzialtasuna murrizteko plana |
| Kooperatibak/lan-sozietateak sustatzeko plana |
| Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskadiko Estrategia 2021-2025 |
| Lan Ikuskaritzako Plan Berezia |
| Gizarteratzeko V. Euskal Plana 2022-2025* |
| |
| GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA |
| Gobernu digitalaren Euskal Estrategia |
| |
| GARAMEN EKONOMIKOA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA |
| Euskadiko Teknologia Parkeen Sarerako 2025 Plana |
| Ekintzailetzako Erakundearteko Plana* |
| Gazte nekazarientzako Gaztenek Plana |
| Euskadiko Itsas Arrantzarako Europako Funtsaren Programa Eragilea (2021-2027) |
| Sasoiko lana aintzat hartzeko V. Plan Integrala, 2021-2024* |
| Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Plana |
| Nekazaritza Politika Bateratuaren Landa Garapenerako Plana |
| Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana* |
| EAEko Plan Hidrologikoa 2022-2028 |
| EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030 (indarrean) |
| Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa 2030* |
| Lurzorua Babesteko Euskal Estrategia 2030* |
| Atmosferaren kutsadura kontrolatzeko plana |
| EAEko sektore publikoaren jasangarritasun energetikorako Jarduketa Plana 2025 (indarrean) |
| Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana 2019/2026 (indarrean) |
| Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integrala |
| *Euskadiko Energia Estrategia 2030 (Energia-trantsizioko eta klima-aldaketako plan estrategikoan integratua)* |
| *Klima-aldaketaren aurkako estrategia. Klima 2050 (Energia-trantsizioko eta klima-aldaketako plan estrategikoan integratua)* |
| |
| EKONOMIA ETA OGASUNA |
| Euskal Estatistika Plana 2023-2026* |
| Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plan integrala |
| Euskadi Next-Europako Funtsak programa (Berpiztu programaren gehigarria) |

| |
|---|
| **HEZKUNTZA** |
| Hezkuntza Azpiegituren Plana 2019-2023 (indarrean) |
| Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Plana, 2019-2023 (indarrean) |
| Gaitasun Handiak dituzten Ikasleentzako Hezkuntza Arretarako Plana (indarrean) |
| Ikasle Etorkinen Heziketa Arretaren Plana (indarrean) |
| Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Plana* |
| Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022 (indarrean) |
| Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana 2019-2021 (indarrean) |
| |
| **LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK** |
| Mugikortasun Jasangarriaren Plana 2021-2025 |
| Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050. |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen III. Plan Orokorra (indarrean) |
| |
| **OSASUNA** |
| Osasun-instalazioak eta -ekipoak hobetzeko eta modernizatzeko plan orokorra |
| Ikerketa Sanitarioko Plana (ZTBP Euskadi 2030en integratua) |
| Euskadiko Onkologia Plan Integrala 2018-2023 (indarrean) |
| Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana |
| Artapen sozio-sanitariorako lehentasun estrategikoak* |
| Adikzioen EAEko VII. Plana* |
| Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko estrategia ("Osasuntsua") (indarrean) |
| |
| **BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE-POLITIKAK** |
| Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Jarduera Plana |
| Euskadin soldata-arrakala txikitzeko Ekintza Plana (indarrean) |
| Justiziaren Euskal Estrategia |
| Habian 2030- gizarte-eraldaketarako hezkuntza Estrategia |
| Gatazkak Konpontzeko baliabide alternatiboak bultzatzeko eta sendotzeko plana |
| Gazte Justiziaren V. Plana. |
| Gazteen Emantzipaziorako Sailarteko Plana |
| Zahartze Aktiborako eta Osasungarrirako Euskal Estrategia |
| Nahi gabeko bakardadearen aurkako Erakundearteko Proiektua |
| Zaintzaileei Laguntzeko Euskal Estrategia |
| Pertsona nagusiekiko gobernantzarako euskal estrategia-Agenda Nagusia (indarrean) |
| EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana 2018-2022 (indarrean) |
| Haurren eta nerabeen indarkeriaren aurkako estrategia integrala* |
| Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko VI. Plana |
| Hezkuntzaren eta Giza Eskubideen Esparru Programa |
| Garapenerako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea |
| Gogoraren Jarduera Plana 2021-2024 |
| Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia |
| Etxerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2018-2021 (indarrean) |
| Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia* |
| Boluntariotzaren Euskal Estrategia |
| |
| **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA** |
| Administrazio publikoetan Euskara normalizatzeko VII. Plana 2023-2027 |
| Eremu sozioekonomikoan Euskara Normalizatzeko Plana 2020-2023 (indarrean) |
| Mugiment-Jarduera Fisikoaren Plan Zuzentzailea |
| HIzkuntza Teknologia Plana 2021-2024 |
| |
| **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA** |
| Turismoa eta Ostalaritza Sustatzeko Programa (1) |

| |
|---|
| Merkataritzari Laguntzeko Programa 2024 (*) (1) |
| Kontsumobideren Plana |
| |

* Berariazko lege-arauetan aurreikusitako plangintza.

(1) Turismo eta Merkataritzako Plan Estrategikoan sartutako Sailetako programak